



## *Erregea eta Merkataria*

Bazen behin urruneko herrialde batean oso aberats bizi zen merkataria bat; bere herrian, gainera, jendeak oso maite zuen gizon hura, zintzoa bezain apala eta eskuzabala zelako. Haren lurraldean, oihal finak egiten zituzten, ehundura desberdinetako oihalak: urrezko hariak tartekatzen zituzten zetazko oihalak, artillerik leunena erabiltzen zuten manta eta lepoko zapiak; baina oihal lodiak ere egiten zituzten, neguko hotza babesean pasatzeko modukoak... Ondoko herrialde batean, gerra anker bat sortu zen eta sortzen zituzten oihal finak ezin zituzten saldu, eta gure merkatariaak pentsatu zuen urruneko “urrezko hirira” abiatuko zela zortea probatzera.

Pentsatu bezala egin zuen: hamaika gamelu prestatu zituen oihalez beteriko fardeletan, eta, zama gameluen bizkarrean, abiatu zen bere laguntzailea eta beste langileekin batera. “Urrezko hirira” joateko, iparraldean zabaltzen zen basamortu arriskutsu bat zeharkatu beharko zuten, baina adorez bete eta bideari heldu zioten beren oihalak saldu eta haien bizimodua hobetzeko grinak suspertuta. Berrogei egun eta beste hainbeste gau eman zituzten ibili eta ibili, joan eta joan, lehenengo zuhaixkak azaltzen hasi baino lehenago. Handik gutxira, zeruan atzeman zuten errainu harrigarri bat, hiriaren urrezko kupulek sortzen zuten distirak ziren eta, argi haiei jarraituta, hiri famatuaren ate aurrera iritsi ziren nekaturik baina, aldi berean, pozarren.

Hirikoek harriturik ireki zieten atea karabanan ailegatu zirenei; basamortutik inoiz ez zen ezer onik etorri eta liluraturik geratu ziren atzerritarren fardel handi haiei begira-begira. Lehenbailehen joan ziren erregeari haien berri ematera, eta merkataria eta bere lagunak gidatu zituzten haren jauregira. Erregeak pozik hartu zituen atzerritarrak eta haiek ekarri zituzten oihal aberatsak; gainera merkataria, opari gisa, oihalik finenak eta aberatsenak bildu zituen fardel txiki batean, erregeari oparitzeko.

Erregea oihalen aurrean harri eta zur geratu zen haien edertasuna eta aberastasuna ikusita; baina haiekin ez zuen nahikoa; berehala agindu zuen beste fardela guztiak irekitzea, horietan gordetzen ziren oihalak ikusteko. Banan bana azaldu ziren bere begi aurrean oihal ezin hobeak eta haien jabe izateko, zer nolako amarrua prestatuko ote zuen hasi zen deliberatzen errege zitala orduan. Halako batean, merkataria eta bere laguntzaileari deitu zien:

–Merkataria, apustu txiki bat egingo dugu. Begira, katu bati erakutsi diot, hanka eta isatsak erabiliz, zazpi olio-ontzi airean mantentzen.  
–Eta zein da apustua?– Galdetu zion merkataria.  
–Hara, xakean arituko gara zu eta ni, eta katuak bitartean zazpi olio-ontziak erori gabe mantendu beharko ditu. Ontziak erortzen bazaizkio alde egiten utziko zaitut zure oihal eta guzti. Baina ontziak hanka eta isatsaren gainean mantentzen baditu, zulo batean sartuko zaitut eta han bizi beharko duzu.



Errege hari ezin zitzaion ezezkorik esan, esaten zuena denek bete behar zuten bizia mantentzeko eta hala xake-taularen aurrean eseri ziren bi gizonak eta jokatzeko hasi ziren. Baina merkatariaren laguntzaileak izaturik alde egin zuen gela hartatik buruan burutapen bat zuela. Beste lankideak bildu eta berehala hasi ziren jauregi osoan saguak harrapatzen; baita zientoka bildu ere zaku handi batean. Isilka eta misilka, laguntzailea sartu zen berriz ere erregea eta merkataria jokoan ari ziren gelara. Zakuaren zirrikitu batetik hamar bat sagu ateratzen utzi zituen; katuak keinu txiki bat egin bazuen ere berehala hartu zuen berriz ere bere eitea. Erregeak errieta eman zion katuari eta mehatxuka hasi zen, merkatariarekin batera sartuko zuela zuloan.

Baina orduan, merkatariaren lagunak geratzen ziren sagu guztiak askatu zituzten eta katuak ontzi guztiak bota eta abiatu zen, ziztu batean, saguren bat harrapatzeko esperantzan.

Langileekin batera, “Urrezko hiriko” pertsona asko sartu ziren orduan sala hartan, eta merkatariaren ordeztu, erregea sartu zuten zuloan lotuta. Errege tranpati hark ordainetan jaso zuen merkatariarekin egin nahi zuena. Merkataria eta bere lagunak hiri hartan geratu ziren pozaren pozez, beren fardel guztiak saldu zituzten arte, eta herrikoek, esker onez begiratzen zieten errege gaizto eta zital hori agintetik baztertu zutelako.

*Itziar Zubizarreta*